

/ Nabarmenezkoak

- > Etxebizitza librerako lursail baten salmenta, babestutako etxebizitzarako baliabideak sortzeko (2. or.)
- > San Inazio, Romo eta Portu Zaharreko jaiak (3. or.)
- > Unai Aranzadiren "A Costa dos Lançados" erakusketa Romo Kultur Etxean (4. or.)

*Getxo Folk 2025
(4. or.)



Letren terrazak. Abuztuaren 1etik 29ra arte, Areetako eta Algortako Geltokia plazetan, eta Aldapa parkean. 11:30-13:30 eta 17:00-20:00.

**A-
GENDA**

Antzeztutako bisitak. Uztailaren 26an, larunbata, "Portu Zaharra bere sustraietatik", eta abuztuaren 2an, larunbata, "Areta bere sustraietatik".

Getxok dispositibo zabala jarriko du martxan jai seguru, alai eta errespetuzkoen gozatzeko

Udalak jai jendetsuenetarako (Algorta, Romo, Portu Zaharra eta Areta) eta Aixerrotarako Paellarako segurtasun-dispositibo berezia aurkeztu zuen aurreko astean. Helburua da pertsona guztiek giro alai, seguru eta errespetuzkoa gozatzea.

Udaltzaingoak eta Ertzaintzak segurtasun-operatibo bateratua ezarriko dute hurrengo neurriekin:

- Erdiguneko karpa bat jartzea, jai-eremu bakoitzean identifikatzeko modukoa, laguntza eta informazio puntu azkar eta eraginkorra eskaintzeko.
- Arma zurien kontrolak egitea puntu estrategiko eta ordu desberdinetan, eta berehala jardutea edozein borroka edo liskarren ondorioz.
- Adingabeei alkoholaren salmenta eta kontsumoa kontrolatzea.
- Alkoholemia-kontrolak.
- Jai-esparru bakoitzean segurtasun "burbuila" bat ezarriko da, eta horren helburua izango da hiritarrendik gertu egotea, behar badu edo edozein motatako informazio garrantzitsua helarazi nahi badu.
- 2024an bezala, bideo-zaintza kamerak instalatuko dira jai esparru guztietan.
- Kalez kaleko salmenta eta dagokien baimenik gabeko elikagaien salmenta kontrolatuko dira.
- Lokalen eta ekitaldien ordutegiak/itxierak kontrolatuko dira.
- Gune moreekin harremanetan egongo da, indarkeria matxistaren biktimak hasieratik babesteko eta egileak berehala atxilotzeko.
- Jai bakoitzean trafiko-mozketak eta desbideratzeak egingo dira, ahalik eta eragozpen gutxien sortzen saiatzeko eta segurtasuna bermatzeko.

Era berean, Babes Zibilak ekitaldi



Amaia Aguirre, alkatea:

"Udako jaiak dira Getxon gehien espero direnak. Batzen gaituzten jaiak, hunkitzen gaituztenak eta talde baten parte garela sentiarazten gaituztenak. Pozik eta errespetuz bizi nahi ditugu. Eta, horretarako, segurtasun-dispositibo sendo bat prestatu dugu, guztiak zaintzeko pentsatua, ondo antolatutako baliabideekin eta eraginkortasunez jarduteko prest dauden profesionalen. Baina segurtasuna ez da erakundeetatik bakarrik eraikitzen. Denok gara herriaren parte, denon artean eraikitzen dugu herria. Denok daukagu zerbait eskaintzeko. Horregatik, jaietan parte hartzen dutenen errespetua, herritartasuna eta lankidetzak eskatzen ditugu. Keinu bakoitzak balioa du. Jai herrikoiak nahi ditugu, erasorik gabekoak, garrantzitsuena ondo pasatzea baita, gure kulturaz, musikaz eta topaketez gozatzea. Ez dugu istilurik nahi. Getxoren ezaugarri direnangatik gogoratu eta bizi nahi ditugu jaiak: pozagatik, bizikidetzagatik, elkarrekiko errespetuagatik eta guztiok batera gozatzeko askatasuna izateagatik".

guztietako segurtasuna zainduko du, azpiegiturak behar bezala instalatzen direla bermatuz, eta jaietako programetan sartutako jardura bakoitzari beharrezkoak diren auto babes-baliabideak emanez: osasun-zerbitzuak (anbulantziak, osasun-langileak, etab.), ebakuazio-bideak, larrialdietako ibilgailuetarako sarbideak, suteen aurkako babes-bitartekoak, etab. Auto babeserako Plana ezarriko da Paellen kasuan, bai eta gainerako jaietan beharrezkoak diren segurtasun, dokumentazio eta higiene-neurriak ere.

Diru-laguntzak

Aurten Itxas Argia elkarteak 21.636 euroko diru laguntza (azpiegiturarako laguntzaz gain) jasoko du Paellen Lehiaketa antolatzeko. Auzo bakoitzeko jai-batzordeak beren-beregi egiten ditu jai-egitarauak, eta Udalak laguntzen du diru-laguntzak emanaz (57.616 euro San Inaziorako, 45.268 euro Romorako eta 38.362 euro Portu Zaharrerako), giza baliabideak eta materialak eskainiz eta urte osoan zehar koordinatuz.

Bestalde, gaueko metro-zerbitzua ez dagoen jaiegunetan gaueko autobus-zerbitzua egongo da, eta udalerrian zehar ibiliko da getxotarrei etxera modu seguruan iristen laguntzeko. Datak eta ibilbideak Getxo Kulturaren gizarte sareetan argitaratu dituzte eta auzo bakoitzeko jai batzordeek ere aditzera emango dute.

Eta ostalaritzako establezimenduek ohi baino ordu bat eta erdiz beranduago zarratzeko baime-na edukiko dute uztailaren 29tik abuztuaren 1era Algortan, abuztuaren 2an eta 6etik 8ra Romon eta abuztuaren 9tik 12ra Portu Zaharrean.



UZTAILAK 25 OSTIRALA

LXX. Nazioarteko Pae-lla Lehiaketa. Aixerrotan. 10:30ean lehiaketarako izen ematea. 12:00etan txalaparta deia, aurrekoa eta dantza emanaldia Ixas Argia dantza taldekoen txikien eskutik. 13:30-14:30 Paellen aurkezpena. 17:30ean sari banaketa eta 18:30ean erromeria.

UZTAILAK 26 LARUNBATA

Santa Anako jaiak. 12:00etan (eta ez 13:00etan, aurreko Getxoberrin akats bategatik agertu zen bezala), meza eta euskal dantzak.

Getxo Eszena Kalean. Antzerkia. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Eraitsi S.L.", Goitiberarekin. Sarrera doan.

Antzeztutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraie-tatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdki86>

Estropadak. 10:15ean, beterranoen ABE Ligako estropada (Getxo Arraunekin); 17:25ean, Getxoko Estropaden XVII. Ikurriña-J.A. Agirre Lehendakariaren XXI. Omendaldia (Eusko Tren Ligako emakumezkoen proba) eta 18:20an, Getxoko Estropaden XLVII. Ikurriña J.A. Lehendakariaren XXI. Omenaldia (Eusko Label Ligako gizonezkoen proba).

UZTAILAK 29 ASTEARTEA

Saninazioak. 18:00etan pregoia eta txupinazioa, eta 18:30ean kuadrillen jaitsiera San Nikolasetik. Egitarau osoa: www.getxo.eus

UZTAILAK 30 ASTEAZKENA

Saninazioak. Kuadrilla eguna. Egitarau osoa: www.getxo.eus

UZTAILAK 31 OSTEGUNA

Saninazioak. San Inazio eguna. Egitarau osoa: www.getxo.eus

ABUZTUAK 1 VIERNES

Saninazioak. Ume eta gazte eguna. Egitarau osoa: www.getxo.eus

Letren terrazak. Areetako eta Algortako Geltokia plazetan, eta Aldapa parkean. 11:30-13:30 eta 17:00-20:00.

ABUZTUAK 2 SÁBADO

Saninazioak. Txipiak eguna. Egitarau osoa: www.getxo.eus

Romoko jaiak. Txupinazioaren eta pregoiaren aurretik (hilaren 6an izango direnak). Kuadrillentzako ekitaldia eta txosnen irekiera; Mus eta talo txapelketak, Reggae Festival eta zezensuzkoa. Egitarau osoa: www.getxo.eus

Antzeztutako bisitak. Aree-ta bere sustraie-tatik. Irteera: 11:00etan, Bizkaia Zubia plazako Turismo Informazio-ko Gunea-PIT-etik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/53ujz7jp>

ABUZTUAK 3 DOMINGO

Romoko jaiak. Playback-etarako CDak eta USBak ematea; nekazal, artisautza eta bigarren eskuko azoka; kultur arteko dantzak, belaunaldien arteko jolasak eta poteo ibiltaria. Egitarau osoa: www.getxo.eus

Oniritzia itsasadarraren azpiko tunelari

Elixabete Etxanobe ahaldun nagusiak itsasadarraren azpiko tunela eraikitzeke behin betiko proiektua aurkeztu zuen aurreko ostiralean, uztailak 10, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onartu ondoren. "Azpiegitura estrategiko, anbiziotsu eta guztiz beharrezko baten aurrean gaude, Nerbioi ibaiaren bi ertzen arteko konektibitatea hobetzeko eta mugikortasun metropolitarraren modu estrukturalen eraldatzeko pentsatuta. Hau etorkizuneko proiektua da Bizkaientzat", azaldu zuen Ahaldun Nagusiak bere hitzaldian.

Etorkizuneko ibai azpiko tunelak Artatzako eta Ballontiko biribilguneak 4 minutu eskasean lotuko ditu, 3,2 kilometroko luzerako tunelari eta beste 2 kilometroko lurpeko sarbideei esker, eta saturazio handia duten ardatzak arinduko ditu, hala nola, Arrontegi (eguneroko 38.000 ibilgailuak murriztuko ditu), La Avanzada (18.500) eta A-8a autobidea (17.500), Barakaldon. Arrontegiko zubia, eguneko batez besteko 175.000



Elixabete Etxanobe ahaldun nagusia, Carlos Alzaga Azpiegiturarako foru-diputatuarekin eta Getxoko, Leioako, Erandioko, Santurtziko eta Sestaoko alkateekin.

ibilgailuko zirkulazio-emariarekin, itsasadarraren ertzen arteko gurutzatze-puntu bakarra da gaur egun, 17 kilometrotan zehar. Gaiak horrek lehen mailako haustura bihurtzen du, metropoliko bide-sistema osorako, puntu horretan egon daitekeen edozein gorabehera. Tunelak sarearen edukiera handitzeaz gain, beharrezkoak ez diren ibilbideak gutxitzea, energia-efizientzia hobetzea eta emisio kutsatzaileak murriztea ahalbidetuko ditu, Aldundiaren arabera.

Indusketaren % 60 Ezkerretatik egingo da. Obrak


2026ko lehen seihilekoan hasiko dira, Artatzako hustuketarekin, eta faseka egingo dituzte. Indusketa aire zabalean egingo dute —Artatza bezalako eremuetan—, baita tunelaren barruan kontrolatutako mikro leherketen bidez ere, eraikuntzetarako eta osasunerako arriskurik gabe (San Mamesen edo BEC... bezala).

Obrek aldi baterako ukituko duten Artatzako parkea lehengoratu da, oinezkoen ibilbide berriekin, bizikletentzako *pumptrack* pista batekin, eta balio didaktiko eta ekologikoa duen anfibioentzako urmael batekin.

Etxebizitza librerako lursail baten salmenta, babestutako etxebizitzarako baliabideak sortzeko

Udalak Iturribarri II. da-goan udal lurzati bat saltzeko lehiaketa publiko bat jarri du martxan. Hori etxebizitza librea eraikitzeke izango da eta operazio horrekin Udalak bere ondare-baliabideak optimizatzeaz gain, etxebizitza babestuaren arloan inbertsio publikoko politika ere indartu nahi du.

Hain zuzen ere, 24,2 egikaritze-unitateko 10A lurzati da, 500 m²-ko azalerarekin eta sestra gaineko hirigintza-erakigarritasuna sabaiko 782,49



m²-koarekin. Lizitazioaren prezioa 1.394.235,05 euro da (zergak kanpo), eta eskaintzak bitarteko elektronikoak soilik erabiliz aurkeztu beharko dira uztailaren 30etik irailaren 12ra, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bitartez.

Lortzen den zenbatekoa Lurzoruaren Udal Ondarera bideratuko da, eta horrek aukera emango dio Udalari etxebizitza publiko eta babestuen jarduketa berrietan aurrera egiten jarraitzeko. Horrela, Getxok hirigintza orekatu eta iraunkorraren aldeko apustua egiten jarraitzen du, egungo beharrei erantzuten diena, etorkizuneko baliabideak arriskuan jarri gabe. "Epe luze-ko ikuspegiarekin kudeatzen dugu: aktiboak herritarrentzako etorkizuneko aukera bihurtzea da Getxo bidezkoagoa, eskuragarriagoa eta datozen erronketarako prestatuagoa eraikitzeke modu bat", azpimarratu du Amaia Aguirre udalerriko alkateak.

Gurari itxita abuztuan

Gurari Emakumeen Etxea itxita egongo da abuztuan. Irailaren 1ean bere ohiko jarduerara itzuliko da Etxea, astean zehar 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era; larunbatetan 15:00etatik 21:00etara, eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era.



Elías Aguirre Arrieta, beste ehun urteko bat Getxon

Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Elías Aguirre Arrieta bisitatu zuen aurreko ostiralean, egun bizi den Beato Domingo Iturrate egoitzan, bere 100 urtebetetzeagatik. Mungian jaioa, gizonak bi alaba eta hiru biloba ditu. Ohi bezala, Aixerrotaren oroigarria eta lore sorta bat jaso zituen zinegotziaren eskutik.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Saninazioak 2025 - Uztailak29/Abuztuak1+

ALGORTA

Jaietan ere euskaraz!



Kartelaren egilea: Uxue Ortells (9 urte)

Kukotz kuadrillak San Inazio jaietako pregoia irakurriko du

San Inazio jaietako hasiera emango die datorren asteartean, hilak 29, 18:00etan, Kukotz iazko taldeen lehiaketa irabazi zuen kuadrillak egingo duen pregoiaren irakurketak. Ondoren, Etorkizuna Mendi Taldeak, Getxo Rugby taldeak, S.C. Punta Galeak eta Bizarra Lepoanek txupinazoa botako dute.

Abuztuaren 2ra arte luzatuko den jai-egitarauak adin guztientzako jarduerak eskainiko ditu, hala nola, kuadrillen jaitsiera eta lehiaketa tradizionala, herri kirolak eta txipi lehiaketa, futbito txapelketa, zezensuzkoa, bertsolariak eta musika ugari, hainbat kontzerturekin eta estilorekin.

Su artifizialak aurten Pirotecnia Zaragozanak botako ditu, uztailearen 31n, 23:00etan, eta barrakak Ereagan egongo dira zabalik uztailearen 24tik abuztuaren 4ra. Azken hori egun herrikoia izango da, bidaiari bakoitzeko 2 euroko prezioarekin.

Egitarau osoa: www.getxo.eus

Hiru emakume, Romoko jaietako liburuxkaren, kamisetaren eta zapiaren egileak

Romoko 2025eko jaietako liburuaren azalak, eta kamisetaren eta zapiaren logoak emakume izena dute. Egitarauaren marrazkia Laura Santisteban egin du, kamisetarena Itxaso Azkunek eta zapiaren egilea Natalia Moody da. Jaiak abuztuaren 2tik 10era bitartean izango dira eguneroko jarduerekin, txupinazoa eta pregoia hilaren 6an izango diren arren, Txutxo eta Romo A.F. taldeen eskutik.

Kuadrillek ekitaldi bat izango dute hilaren 2an, Aingeruen Andra Mariaren egunean; hilaren 3an emango dituzte abuztuaren 8an izango diren paybacketarako CDak eta USBak; hilaren 4an Plater irekia egingo dute eta 5ean goitibeheren jaitsiera. Txupinetik aurrera ez dira faltako Herri Krosa, Poteoko Rallya, Felliñak, Etxe Merkeen mendeurrenako bazkaria, bilbainadak eta abar luze bat. Behin behineko egitaraua: www.getxo.eus



Liburuxkaren azalaren egilea: Laura Santisteban



Kartelaren egilea: Alex Orbe

Txakurtxirulek Txo eramango du Portu Zaharreko jaietan

Portu Zaharreko jaietan iazko lehiaketa irabazi zuen Txakurtxirulek kuadrillak Txoa eramango du jaitsieran eta txupinazoa botako du abuztuaren 9an, larunbatean, 12:00etan. Kuadrillen lehiaketako lehen proba izango da eta gasolindegitik porturaino egingo da.

Jai-egitarauan ez dira faltako sardina-janak, altxaldiak, kuadrillentzako kukaña bertikala hondartzan, Marmitako lehiaketa Pijaman eta Mahon Eguna, bertsolariak, jolasak eta haurren jaitsiera, eta hainbat kontzertu, besteak beste, XI. Rugby Tokata Lehiaketaz gain, kirol hori jaietan zabaltzen saiatzen dena. Zezen-suzkoari dagokionez, jai batzordeak gogoratzen du ezin dela ukitu, bultzatu, ezta korrika egin txankletekin ere.

Jaiak hilaren 12ra arte luzatuko dira, eta Txoren erreketarekin amaituko dira horman.

Egitarau osoa: www.getxo.eus



17 talde, 4 World Tour mailakoak, Getxoko Zirkuituan

80.edizioa beteko duen *Otxoa Anaien Oroimenezko Getxoko Zirkuitua* (horren antolatzailea den S. C. Punta Galearen 50. urteurrenarekin batera) 17 talde partaide edukiko ditu aurten, horietako lau World Tour mailakoak (Movistar, Lidl-Treak-USA, Cofidis-FRA eta UAE Team Emirates), zazpi Pro Team-ekoak eta beste bost Kontinentalekoak. Lasterketak kilometroen kopurua murriztu du pixka bat, 200 kilometrotatik 172ra, baina ez dio gogortasuna kenduko, bi-ziagoa izatea delako asmoa. Abuztuaren 3an, 12:15ean aterako da Guggenheimeko zabalgunetik, ohiko ibilbidearekin. Azpimarratu behar da Ohorezko Zuzendaria Jonathan Castroviejo getxotarra izango dela, txirrindulari profesional gisa erretiratuko dena eta duela 30 urte baino gehiagotik klubean hasi zena.



Beste hitzordu bat traineru froga ospetsuenekin

Larunbat honetan, uztailek 26, traineru froga ospetsuenak izango dira Arriluzeko kaian (Kirol Portuaren parean). Hain zuzen ere, 10:15ean ABE-Beteranoen Ligaren azken estropada izango da, kategoria horretako aspaldikoena, sailkapenean hirugarrena den Getxo Arraunek 21 edizio antolatu baititu. Ondoren, 17:25ean, Getxoko Estropaden XVII. Ikurrina-J.A. Lehendakariaren XXI. Omenaldia izango da, Euskotren Ligako zazpigarren proba puntuagarria eta horretan emakumezkoen zortzi ontzi lehiatuko dira. Eta amaitzeko, 18:20an, gizonezkoen txanda izango da, Getxoko Estropada XL-VII Ikurrina-J.A. Lehendakariaren XXI Omenaldia, ACT-TKE Ligako bigarren zaharrena. Orio da faborito nagusia, Zierbenaren aurretik.



Estrella Morente



Capercaillie



Carminho

Estrella Morente, Capercaillie, Carminho, Xabier Zeberio & Andrés Isasi Musika Eskola eta omenaldia Benito Lertxundiri Getxo Folken

Irailaren 10etik 14ra Getxo Folkek bere 41.edizioa ospatuko du, eta, beste behin ere, musika publikoari hurbiltzea izango du helburu, erritmo tradizionalak eta beste genero eta estilo batzuk uztartuz. Horretarako, Jaialdiak egitarau zabala eskainiko du, Muxikebarriko abonu kontzertuekin (20:00etan) eta gune irekietan, Areetako Geltokia plazan eta Ereaga Hondartzako aparkalekuan, azken horretan bi ekitaldirekin publiko gaztearen aldeko apustua aurrera eramateko.

Abonu kontzertuak hilaren 10ean hasiko dira, Xabier Zeberioaren *Pause* proiektuaren eskutik, bere abestietan Andrés Isasi Musika Eskolako ikasleen laguntzarekin. Hurrengo egunean, irailaren 11n, flamenkoaren eszenako artista enblematikoenetako bat den Estrella

Morentek Getxo Folk bisitatuko du bigarren aldiz, generoaren ahots garrantzitsuenetako bat izatera eraman duten ezaugarriak erakusteko. Ostiralean, hilak 12, Capercaillie, musika tradizionalako eskoziar talde mitikoa, hainbat hamarkadako ibilbidea atzean duela, bere herrialdeko eta kanpoko erritmo tradizionalen erreferentzia nagusietako bat izan da, sustraiko musikak beste joera batzuekin uztartuz. Hilaren 13an, Carminhoren txanda izango da. Portugalgo fado eta kantu tradizionalako artisten belaunaldi berri baten erakusle da, eta forma berriak aztertze gaitasunagatik nabarmentzen da, kanon tradizionalak alde batera utzita, baina sustrai sakonak dituen genero baten bidea alde batera utzi gabe.

Jaialdia hilaren 14an amaituko da

Hunkidura kuttunak ikuskizunarekin. Horretan hainbat diziplinako artistek omenaldia egingo diote Benito Lertxundiri. Kukai Dantza eta Arkaitz Hormaetxeren zuzendaritzapean, Mikel Markezek, Idoia Asurmendik, Janus Lesterrek eta Miruak, besteak beste, ibilbide musikal eta emozionala proposatuko dute musikari oriotar handiaren ibilbidean zehar.

Kontzertu hauetarako sarrerak salgai daude Muxikebarrin, Romo Kultur Etxean eta Kutxabanken.

Doako kontzertuak

Getxo Folk jaialdiaren programazioarekin bat egingo du Areetako Geltokia plazan aire zabaleko kontzertuak eskaintzeko proposamenak. Bertan, La West Bluegrass Band, Erromintxelak, Hutsun Txalaparta, Sensei Mu-

sic Ensemble eta Deira Band bezalako talde eta artistak bilduko dira, besteak beste, Ipar Amerikako soinu tradizionalak, euskal musika eta jazz-folka ekarriko dituztenak. Bertan ere haur eta familientzako proposamen berezi bat eskainiko da, Ene Kantak talde ospetsuaren emanaldia eta txikientzako ludoteka musikal bat hartuko dituen.

Azkenik, Ereaga hondartzako aparkalekuan gazteentzako ostiraleko eta larunbateko gaueko bi hitzordu izango dira. Bertan, Chambao (hilak 12) eta Muerdo (hilak 13) taldeen musikaz gozatu ahal izango dute, 22:00etatik aurrera. Horrez gain, Black Raven Pipe Band irlandar gaita taldearen desfileak eta hilaren 13an ea 14an Areetako Geltokia plazako anfiteatroan musika ludoteka izango dira.

“Eraitsi SL” lanak itxiko du Getxo Eszena Kalea zikloa

Larunbat honetan, uztailak 26, 18:30etik aurrera, Areetako Geltokia plazan *Eraitsi SL* izenburuko lanaren antzezpena izango da, Goitibera konpainiaren eskutik. Horrek amaiera ipiniko dio aipatutako eszenatokian maiatzaz geroztik izan den *Getxo Eszena Kalea* kaleko arte eszenikoen programari.

Espazio publikoari eta jolasari buruz hausnartzen duen ikuskizuna izango da lana.



Unai Aranzadiren “A Costa dos Lançados” erakusketa Romo Kultur Etxean

Abuztuaren 4tik 30era arte, Unai Aranzadi dokumentalista, erreportaria eta argazkilaria getxotarraren *A Costa dos Lançados* izenburuko diziplina anitzeko erakusketa ikusi ahal izango da Romo Kultur Etxean, Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, UN Etxea elkartearen laguntzarekin. Erakusketan 40 argazki, izen bereko dokumentala (2023ko urtarrilean Muxikebarrin aurkeztua eta Mexikoko Veracruzeko X. Zinema Jaialdian saritua), mapak, artxibo historikoak eta testu ugari daude.

Erakusketa, dokumentala bezala, bi hilabetetan Senegaletik, Gambiatik eta Guinea-Bissautik Aranzadik egindako 2.000 kilometroko bidaia baten emaitza da. Iberiar penintsulatik kanporatuak izan ondoren, Afrika bel-



tzaren lehenengo esplorazioak egiteko Kanariak eta Cabo Verde oinarri gisa erabili zituzten judu konbertituen historia ezezaguna kontatzen du bere lanean. Iru-dien eta testuen bidez, egileak gertakari historiko hori Kanarietako egungo migrazio-ibilbidearekin lotzen du, “*persona etsituak ur horietan gaur egun aspaldi bezala aurkitzeak dakarren paradoxarekin, oraingoan kontrako norabidean*”, nabarmendu du getxotarrak. Migrazio-fenomenoari zuzenean lotutako beste faktore batzuk ere agerian uzten ditu erakusketak, hala nola kolonialismoa, kontsumo-gizartea, eta iraganaren eta orainaren esklabotza.

Erakusketaren ordutegia asteleheneetik ostiralera 8:30etik 21:30era izango da, eta asteburuetan eta jaiegunetan 11:30etik 20:30era.